

Munduaren euskal historia

Denbora da, gugandik oso urruti, gure arbaso izandako euskaldun haiek, beste lurralde batzuetan ibili zirela itsasoa zeharkatuz. Itsaso edo ozeano erraldoi hura, ... askotan izutu egiten zituena, baina lagun ere izan zutena, ondo ezagutzen baitzuten. Izan ere, oso marinel trebeak izatearen ospea zuten.

Atzerrian hasi zitzaizkigun hau guztia ikertzen. Dударik gabe, aipatu behar ditugu Selma Huxley britaniarra, horrenbeste sari eta aipamen berezi izan dituen, edo P. Bakker, edo Robert Grevin, Manu Izagirrerekin batera aritu zena arkeologia lanetan ur azpitik orduko itsasontzi euskaldunak atera nahian. Gure artean ere adituak izan ditugu baina ebidentzia arkeologikoak falta zitzaizkigun.

Ba da aditu ezagun bat, Kurlansky izenekoa, euskaldunen presentzia Ameriketako Kolonen aurrekoa izan zela defendatzen zuena. Teoria hau oinarritzeko pisuzko bi argumentu erabili zituen. Batetik, kontuan izan behar dugula euskal marinelen harrapaketen bolumen erraldoia. XIV. mendean bakailao eta balea haragi ugari deskargatzen omen zuten, eta lehiakideek ezin zuten ulertu nondik zetozkien, kaladero ezagunetan ezin baitzuten horrenbeste arrantzatu. Hortaz, Kurlanskyren hitzetan, bakarrik Ternuan zen posible halako ugaritasuna aurkitzea, eta hori, izatez, jakin ez zekiten lehiakideek.

Bigarren argumentuak zera zioen: hain marinel trebeak izanik, itsas industria horren aurreratua izanik euskal ontziolatan, eta Atlantiko osotik ibilita eta itsas distantzia luzeak bidaiatzera ohituta, nola izan daiteke, ustekabeen edo nahita, Ameriketako lur haietatik ez agertzea inguruetan ibiliak baziren? Ezinezkoa litzatekeela zioen.

Honen harira, Kanadako Sable Islanden inguruan egindako ikerketen autoreek ere halaxe pentsatzen dute. Izan ere, Faroe Irlatan 875.ean euskal marinela egon izandako ebidentziak agertu dira. Hori 2.000 km.ko bidaia luzea izango litzateke, Britaniar irlatan eskalak egin ezik, eta benetan oso distantzia handia da denbora hartarako. Ez al da posible hurrengo sei mendetan zehar, Atlantiar iparraldean lanean arituta, euskaldunak Ipar Ameriketara abiatu izana? Batez ere, kontuan izanik distantzia 2.000 km.koa baino txikiagoa zela eta ordurako vikingoak ba zebiltzala espediziotan ere!

Gauzak honela, Kanadako Ternua edo Terranovan, Labradorko Penintsulatik gertu, euskaldunen presentzia dokumentatuta dugu 1527.etik aurrera, balea zein bakailaoa ehizatzeke asmotan. Toponimian nabaria da eragina, zenbait tokitan aurki baitaiteke euskal arrastoa duen leku izenen bat. Baina, zergatik abiatuko ziren euskaldunak urrutiko lur haietara?



Baleazale euskaldunak

Euskaldunak izan ziren lehen baleazaleak Bizkaiko Golkoan. Lehen datua 670. urteko dokumentu batean agertu zen, non Laborteko arrantzale batzuek 40 balea-olio bote saldu zituzten Frantziako Iparraldean.

Aldiz, Ipar Atlantikoan arrantzale euskaldunen inguruan aurkitutako lehen erreferentzia historikoa 1412koa da. Islandiarrek, urte hartan, Grundarfjörður-etik 500 millalara arrantzan hogeit bat euskal baleontzi zebiltzala esaten zuten. Ziurrenik euskaldunak lan horietan ibiliak izango ziren hamarkada batzuk lehenagotik, ez bakarrik balearen arrantzan, baizik eta komertzioan ere. Izan ere, balearen arrantzak, orduantxe, etekin ugari ematen baitzituen eta ordurako oinarrizkoak ziren produktuak eskaini ere. XII. mendean, euskaldunek hainbat portu sortu zituzten balearen arrantzarako, Getariakoa kasu (1204) edo eta Lekeitiakoa. Hala eta guztiz ere, ezaguna zen sasoi hartan gero eta balea gutxiago zebilela Bizkaiko Golkoan, zeren, Gaztelako errege Alfonso XI.nak ere, honen ehizaren debekua luzatu omen zuen, gehiago birsortu zitezten. Honek arrantzaleak beste itsaso batzuetara abiatzea bultzatu izango zukeen.

1412.ko dokumentu islandiar hartan, hogeit baleontzien presentziaren berri dugu irlako mendebaldeko kostaldean, Groenlandiatik 700 km.tara soilik. Handik Ternua 1.800 km.tara legoke, eta ez litzateke harritzekoa izango euskal arrantzaleak baleen atzetik ibiltzean, Artiko